

# KIROLA GORA ETA BEHERA HITZALDIA



DBHko 4. maila. Hizkuntzen Trataera Bateraturako materialak

**HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUEN PROGRAMA  
PROGRAMA DE TRATAMIENTO INTEGRADO DE LAS LENGUAS**

**DBHko 4. mailarako materialak / Materiales para 4º de E.S.O.**

PROIEKTUA / PROYECTO: Kirola gora eta behera

UNITATEAK: **Kirola gora eta behera. Hitzaldia.**  
UNIDADES: A vueltas con el deporte. Informe escrito.

ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA: Teresa Ruiz  
DIRECCIÓN Y COORDINACIÓN:

SORTZAILEAK: Nerea Badiola  
AUTORAS:

KOLABORATZAILEAK: Teresa Ruiz, Maribi Apraiz, Marimar Pérez eta  
COLABORADORES: Hizkuntza eta Gizarte esparruko Bigarren Hezkuntzako  
Aholkulariak

Berritzegune Nagusia (Bilbao)  
Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.  
Gobierno Vasco. Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

MATERIAL HONEN JABETZA EUSKO JAURLARITZARENA DA  
MATERIAL PROPIEDAD DEL GOBIERNO VASCO

2008ko urria  
Octubre de 2008

Bada gela honetan kirolik egiten ez duenik? Eta kirol saiorik ikusten ez duenik? Zer nolako garrantzia du kirolak zuen bizitzan? Eta gaur egungo gizartean?

Batzuek kirolen bat egingo dugu, beste batzuek ez, baina hala eta guztiz ere, kirolaren eragina nabarmen sentituko dugu gure bizitzan: esate baterako, txirrindularien lasterketetarako asmatu zen GPSa, gero eta kotxe gehiagok erabiltzen dute, edo mendiko arropetarako asmatu ziren zuntz iragazkaitzak kaleko arropak egiteko erabiltzen dira.

Unitate honetan kirolak gizartean eta teknologian izan duen eragina aztertzeko proposamena egiten dizuegu. Horretarako, teknologia eta kirolaren arteko harremanari buruzko ahozko azalpen testua prestatuko duzue: hitzaldia, hain zuzen ere.

Hitzaldia DBHko 1. mailako ikasleentzako prestatuko duzue, eta euren gelan edo institutuko auditorioan aurkeztuko diezue. Aldi berean, gaztelania arloan kirola eta gizarteari buruzko txosten bat idatziko duzue.



<p><b>0. jarduera. Motibazioa eta negoziazio.</b></p>
<p><b>1. LAN-SEKUENTZIA. ZER EGINGO DUGU?</b></p> <p>1. jarduera. Hitzaldia. 2. jarduera. Hartzailearen arreta zeuenganatu. 3. jarduera. Ez-hitzezko ezaugarriak. 4. jarduera. Sarrera prestatzen.</p>
<p><b>2. LAN-SEKUENTZIA. TESTUAK EGOKITU</b></p> <p>5. jarduera. Informazioa biltzen. 6. jarduera. Norentzat da testua? 7. jarduera. Nola erraztu testua. 8. jarduera. Testua egokitzen.</p>
<p><b>3. LAN-SEKUENTZIA. INFORMAZIOA EGITURATU ETA KOHESIONATU</b></p> <p>9. jarduera. Kirola eta zientzia: dopina eta entrenamendua. 10. jarduera. Hitzaldiaren eskema. 11. jarduera. Erreferentzia ez galdu. 12. jarduera. Kausa-ondorioa egiturak lantzeko ariketa. 13. jarduera. Informazioa kohesionatzen.</p>
<p><b>4. LAN-SEKUENTZIA. KIROLA ETA TEKNOLOGIA, HITZALDIA</b></p> <p>14. jarduera. Zer daukagu? Zer falta da? 15. jarduera. Nola amaitu hitzaldia. 16. jarduera. Hitzaldia prestatzen. 17. jarduera. Praktikatzen. 18. jarduera. Entzuleen aurrean.</p>
<p><b>Auto-ebaluazioa</b></p>

## 0. jarduera. Motibazioa.

Jarduera bera egingo duzue unitate bietan, bai euskarakoan, bai gaztelaniakoan.

Zenbat dakizue kirolaz? Hurrengo taulan kirolarien zerrenda bat duzue, baina datu batzuk falta dira. Taula bikoteka bete. Ea nortzuk amaitzen duten lehenengo!

Izena	Kirola	Beste datuak
Carlota Ciganda	Golfa	
José Ángel Iribar		Atezain internazionala izandakoa
Unai Osa		
Nerea Onaindia		
Marino Lejarreta		
Titín III		
Abraham Olano	Txirrindularitza	
Xabi Alonso		Erreala Liverpool taldea
Edurne Pasaban	Alpinismoa	
Julen Guerrero		
Iñaki Perurena		
Angela Vilariño		Familiatik datorkio zaletasuna
Joane Somarriba		Giroaren irabazlea
Mikel Goñi		
Alberto Iñurrategi		
Juanma López Iturriaga		Zilarrezko domina lortu zuen Olinpiadetan.
Josune Bereziartu		


Zenbat denbora behar izan duzue taula osatzeko? Ea hurrengo hau zenbaten betetzen duzuen. Lauko taldeetan lan egin, horrela nahi izanez gero, eta bost izen bakarrik jarri hutsune bakoitzean.

Arlo bakoitzean aritutako bost pertsonaren izenak idatzi, eta gizakiari ekarritako onurak komentatu.
<b>Biologoak:</b>
<b>Pilotariak:</b>
<b>Matematikoak:</b>
<b>Futbolariak:</b>
<b>Fisikoak:</b>
<b>Saskibaloj jokalariek:</b>
<b>Idazleak:</b>
<b>Txirrindulariak:</b>
<b>Medikuak:</b>
<b>Atletak:</b>
<b>Margolariak:</b>
<b>Dantzariak:</b>



Hau errazagoa da! Kirolari loturiko hurrengo aurrerapen teknologikoetatik, esan honezkero egia direnak, eta oraindik egia ez direnak.

Italiako Karada etxeko ingeniariak Hugo Boss moda-etxeko diseinatzaileekin batera, hozte-sistema duen barruko arropa prestatu dute.	
Uretatik irten eta berehala lehortzen diren teflonezko (zartagietako gai itsasgaitza) eta lycrazko bainujantziak daude.	
Barruko arropa afrodisiakoa.	
Jokalarien eta baloiaren kokapen zehatza une oro zein den jakiteko, mikrouhinetan oinarritutako sistema bat aurkeztu dute Alemanian. Hartara, momentu bakoitzean jakin daiteke non dauden bai jokalaria bai baloia, eta jokoz kanpoko jokaldia gertatu bezain laster, alarma pizten da.	
Lois etxeak poltsikoetan eramaten diren gauzak detektatzen dituen arropa aterako du. Bakarren bat ahaztuta utziz gero, abisua pasatzen du.	
Honezkero posible da ur azpian arnastea oxigeno bonbona barik.	
Edozein min-mota detektatzeko gai diren elastikoak, bizi-konstanteei buruzko informazioa transmititzeko gai direnak.	
Lehiaketa baino 1-7 egun lehenago, kirolariari aurretik atera eta izotzetan gordetako globulu gorriak desizoztu egiten dira, suero fisiologikoan disolbatu eta kirolariari sartzen zaizkio berriro.	





Gai interesgarri honi hurbiltzeko balioko digun azken jarduera: hitz egin dezagun pittin batean. Zenbatek egiten duzue kirolen bat normalean? Hiru eta lau pertsonako taldeak egin; talde bakoitzean, gutxienez, kirolari bat egon beharko da, besteei bere kirolaren/jardueren ezaugarriak azalduko dizkiena. Dakizuenez, ahozko edo idatzizko azalpena egin baino lehen, derrigorrezkoa da plana edo azalpenaren gidoia egitea. Jarraian duzue zuen azalpena emateko erabil dezakezuen gidoia, baina lasaitu, ez duzue zehatz-mehatz jarraitu behar.

- Azaldu zer kirol egiten duzun, eta oso ezaguna ez bada, esan zertan datzan. Azaldu zer materiala erabiltzen duzuen.
- Azaldu taldekakoa edo bakarkakoa den, eta horrek dituen alde onak eta txarrak.
- Azaldu nolako eragina duen kirol horrek zure egunerokotasunean: dedikazio orduak, ikasketetan duen eragina, zure harremanetan, zure osasunean...
- Esan nolakoa den kirol horren inguruko mundua: aukerak, presioa, ikusle kopurua eta abar.
- Amaitzeko, esan nola ikusten duzun kirol horren etorkizuna.

Idatz ditzagun arbelean aurretiaz egindako ariketen emaitzak, Zer taula egin zaizue errazagoa? Zergatik? Zein da kirolaren benetako garrantzia gizartean? Eta gure bizitzan? Zer garrantzi dute kirol batzuek iragarkietan, prentsan...?

Ikusten denez, kirolaren mundua oso zabala da eta garrantzi handikoa gure gizartean; proiektu honetan gaztelania arloan bikoteka kirola eta gizarteari buruzko txostena egiteko proposamena egiten dizuegu, eta euskara arloan, berriz, hitzaldia prestatzeko proposamena.

Kirola: gizarte fenomenoa	Teknologiaren garapena eta kirola
Emakumeen kirola eta gizarte bereizkeria	Dopina eta osasunean duen eragina



## 0. jarduera. Negoziazioa.

Hiruko taldeen bildurik arituko zarete eta honako txantiloia hau erabiliko duzue. Kontuan hartu honako jarraibide hauek:

- Irakurri tentuz.
- Idatzi zutabe horietan zuen ustez falta dena, garrantzitsua baldin bada.
- Zuen ustez garrantzirik ez duena, kendu.
- Sailkatu zutabe bakoitzeko elementuak garrantziaren arabera.
- Taldeko ordezkaria izendatu denok batera aritzean ikaskideei zuen taldekoen iritzien berri emateko.

Zer ikasiko dugu?	Nolako jarduerak egingo ditugu?	Nola ebaluatuko dugu lana?
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Hitzaldiaren ezaugarri bereziak. Hartzailearen arreta mantentzen.</li> <li>▪ Ahozko testuen baliabide ez linguistikoak.</li> <li>▪ Testua hartzaileari egokitzen.</li> <li>▪ Kausa-ondoriozko azalpen testuen ezaugarriak.</li> <li>▪ Testuaren kohesioa lantzen.</li> <li>▪ Hitzaldia taldeka sortzen eta ematen.</li> <li>▪ Teknologiak kirolean izan duen eragina.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Hitzaldia aztertu.</li> <li>▪ Ikaskideen aurrean azalpena eman.</li> <li>▪ Testua eta mezua hartzaileari egokitu.</li> <li>▪ Testuak kohesionatu.</li> <li>▪ Ikaskideen testuak aztertu.</li> <li>▪ Taldeka eztabaidatu.</li> <li>▪ Informazioa bilatu, bai liburuetan, bai interneten.</li> <li>▪ Ikus-entzunezkoak erabili hitzaldia burutzeko.</li> </ul>	<p><b>PROZEDURAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Auto-ebaluazioaren bidez.</li> <li>▪ Ikaskideen ebaluazioaren bidez.</li> <li>▪ Aurkeztutako testuen bidez.</li> <li>▪ Frogatxoaren bidez.</li> <li>▪ Koadernoetan egindako lanaren bidez.</li> <li>▪ Azken talde ekoizpenaren bidez.</li> </ul> <p><b>JARRERA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Parte-hartze aktiboaren bidez</li> <li>▪ Talde lana errespetatuz.</li> </ul>

## 1. LAN-SEKUENTZIA ZER EGINGO DUGU?

### 1. jarduera. Hitzaldia.

Dakizuenez unitate honen amaieran hitzaldi bat eman behar diezue DBHko 1. mailako ikasleei. Baina, ba al dakizue hitzaldi bat zer den? Jakina baietz, horrelakoak entzungo zenituzten-eta telebistan edo eskolan.

Orain, 4. mailan, lehendik dakizuen guztiarekin eta unitate honetan ikusiko duzuenarekin hitzaldi bikaina emateko aukera izango duzue. Ez ahaztu azken ekoizpena kanporako egingo duzuela eta ondo prestatuz gero "gaztetxoak" txundituta utziko dituzuela.

#### Prozedura

Behatu honako ahozko azalpen bi hauen zatiak eta taldeka aztertu.

[BIDEOAK\aixerrotdacavi.mp4](#)  
[BIDEOAK\LuistxoFernández.mp4](#)

Hitzaldi hauetatik zer hartuko/kopiatuko zenukete zuen hitzaldirako eta zer ez? Erabaki ondoren, ordezkariak taldearen iritzia aurkeztuko dizkie beste gelakideei.

KONTROL ORRIA	BAI/EZ	ZERGATIA
Hitzaldia jesarrita eman		
Irudiak eta diapositibak erabili		
Musika jarri		
Azkar hitz egin		
Ahots doinua zaindu		
Arbelari begira hitz egin		
Sarrera batekin hasi		
Ilea ukitu lasaitzeko		
Irakurri gure zirriborroa		
Eskuak atzean ditugularik hitz egin		
Diapositibetako letra txikiegia		
Buruz ikasitakoa errepikatu		
Eskuak ahotsari laguntzeko keinuak egiteko erabili		

Ulertzen ez dena azaldu		
Jendeari begiratu hitz egiten dugunean		
Besterik:		

1.2. Taldeka erabaki zein izango den zuen hitzaldiaren gaia,.

1.3. Irakurri Etxenike fisikariak edo Itxaro Borda idazleak Bilbo Zaharra Forum-ean emandako hitzaldia. Arretaz aztertu eta jarraian dagoen taulan hitzaldiaren atalen ezaugarri orokorrenak zehaztu. Horietako batzuk, orain arte ikusitako azalpen testuetan agerturikoak dira. Beste batzuk, testu mota hauetan berriak izango dira.


Oharra: Sarrera eta amaiera osorik irakurri, baina, garapena ez da osorik irakurri behar; taulako ezaugarriak agertzen diren ala ez argi ikusi arte bakarrik irakurri behar da: nahikoa izango da hiru-lau orri irakurtzea.



	SARRERA	GARAPENA	AMAIERA
Hitz tekniko asko			
Gehienak hitz arruntak			
Jakintza arlo batekin erlazionaturik			
Funtzio informatiboa			
Funtzio apelatiboa/deitzailea			
Balorazioak edo iritziak			
1. pertsona plurala			
1. pertsona singularra			
2. pertsona plurala			
3. pertsona singularra			
Ziurtasuna adierazteko aditzak			
Ziurtasun eza adierazteko aditzak			
Desira, nahia... adierazteko aditzak			
Adierazpen perpausak			
Galdera perpausak			
Besterik:			

[TEXTUAK\ItxaroBorda.doc](#)

[TEXTUAK/PM\\_Etxeni.kpdf](#)



## 2. jarduera. Hartzailearen arreta zeuenganatu

Hitzaldia ematerakoan, une batzuetan arreta piztea eta mantentzea beharrezkoa izango duzue. Baina, nola lortu hori?

Igorlea, testuak ekoizterakoan, informazioa era inbertsonalean ematera muga daiteke: esaten duenarekiko distantzia azaldu dezake, mezua bere presentzia islatu gabe garatuz. Edo esaten duen horretan inplika daiteke, bere presentzia nabarmentzeko modalizatzaileak erabiliz; horrela, entzuleen arreta erakarri eta mantenduko du.

### Prozedura

Irakurri Etxenike fisikariaren hitzaldiaren sarrera (1. testua). Azpimarratu eta taulan jarri, igorleak bere buruari eta hartzaileari erreferentzia egiteko erabiltzen dituen izen ordainak eta aditzak. Konparatu jarri dituzunak zure alboko gelakideak jarri dituenekin.

	Izen ordainak	Aditzak
Igorlea		
Entzulea		
Biak		

Zertarako erabiltzen ditu horrelako bitartekoak?

## 1. testua

Pedro Miguel Etxenike. Fisika, sormena, etorkizuna.

- 2 -

Arratsalde on.

Pozgarria da niretzat gaur hemen, zuen aurrean, egotea. Ezertan hasi baino lehen, nire esker ona agertu nahi diet antolatzaileei, egin didaten gonbidapenarengatik. Hitzaldi bat ematea beti da lana, hori ez dut ukatuko. Baina gaurko hau, lana ez ezik, ohorea ere bada niretzat.

Egia esan, bada kezkatzen nauen zerbait ere. Fisika hutsari buruzko hitzaldia egin beharko banu, lasaiago egongo nintzateke, nahiko erraza baita fisika hutsari buruz hitzaldi bat egitea. Izan ere, fisikari estatu-batuari handi batek, Feynman-ek, zioenez, hitzaldia fisika hutsari buruzkoa baldin bada, berdin dio denek dena ulertzen ez badute ere. Feynmanen arabera, hitzaldiaren heren bat audientziak ulertzeko modukoa izan behar du, hori bai, horrela eskatzen baitu audientziari zor zaion begiruneak. Hitzaldiaren beste heren bat, hizlariak berak ulertu behar luke, gaiak berak ere merezi du-eta begirune apur bat. Azkenik, eta beti ere Feynmanen ustez, hitzaldiaren beste heren bat inork ez du ulertuko, naturari\* ere bere begirunea zor baitaio.

Nik, ordea, den-denek den-dena ulertzeko moduko hitzaldia egin behar –eta nahi-dut gaur hemen, eta hori askoz zailagoa da, sinistu idazue. Gehiago esango dizuet: zientziaren ikuspegitik ezinezkoa da hitzaldi bat entzule guztiak osorik ulertzea. Hori horrela da, eta zientifikoki frogatua dago, gainera.

Cambridge-ko unibertsitateko Cavendish Laboratory-n frogatu da hori, nik doktoregoa egin nuen taldean, hain zuzen ere. Unibertsitate horretan egin berri den ikerketa baten arabera, zuek osatzen duzuen bezalako audientzia buruargi eta motibatu batek ezin dio arretari hogeita minutu baino luzeagoan eutsi, ezta munduko hizlaririk bikainena ari bada ere hizketan. Ezinezkoa da, ez dago zer eginik.

Zuentzat zorionez, ordea, *Nature* aldizkariak oso albiste ona argitaratu zuen duela aste gutxi batzuk, artikulua batean. Artikulua, Cambridgek berak eta “beste Cambridge” edo “bigarren Cambridge” deitzen dioten Harvardek elkarlanean egin zen. Artikuluak zioenez, zuek osatzen duzuen bezalako audientzia buruargi eta motibatu batek, hogeita minutu pasatu eta entzuten ari denari arreta galtzen dionean, era guztietako fantasia basatiak sortzeari ekiten dio. Bai, pentsatzen ari zareten fantasia-mota horietakoak ere bai, noski.

Nik horretarako beta emango dizuet gaur, luze samar jardungo dut eta. Badakit, beraz, esaten dudana esaten dudala ere ederki pasatuko duzuela nire hitzaldiari esker, baina ez dut uste horregatik barkamena eskatu behar dizuedanik.

Hasieran gaude. Bai hitzaldiaren hasieran, bai hogeitabatgarren mendearen hasieran. Une ezinago egokia, nire ustez, hogeitabatgarren mendearen balantzea egiteko. Geure buruari egin beharko geniokeen galdera nagusia, nire ustez, hauxe da: Zer izan da, funtsean, hogeigarren mendea?

...

[http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik\\_kod=11805](http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=11805)

## 2. testua

### **BERNARDO ATXAGA** (2004- 01- 22)

Arratsaldeon guztioi. Estimaten dizuet etorri izana. Uste dut gehiagotan etorri beharko nukeela Bilbora, zeren bestela, gaurkoan bezala, etorri, eta halako betea da eguna, non, hitzaldira iristen naizen ni gorputzez, burua baino lehenago, eta kosta egiten zait, hitzaldiari hasiera ematea. Hitz soilagotan esanda, etortzen naiz pittin bat galduta. Beraz, egon zernahitarako prest.

Irudipena dut baita ere, urtebete berandu edo behar baino urtebete geroago ote natorren, hitzaldi hau ematera. Iaz “ahotsa eta letra” delako hitzaldi bat eman ondoren, batez ere gogoeta bat izan zen ahozkoaz eta idatziaz, izugarritzko eztabaida sortu omen zen, baina ez hain zuzen ere ahotsaz eta letraz, baizik eta hizkuntzari buruz, edo zehatzago, euskararen egoerari buruz, nik hitzaldiaren amaieran entzuleekiko elkarrizketan esan nituenak aintzat hartuta, oker ez banago.

Orain, berriz, “Euskal kulturaren ajeak eta literatura” izeneko gai bati buruz hitz egitera nator, eta, ezinbestean, hizkuntzaz, euskararen egoeraz, zeren literaturan arazo guztiak hizkuntzaren esparrutik pasatzen baitira. Ez hizkuntzaren esparrutik bakarrik, baina beti ere, nahi eta nahi ez, hortik. Nik diot: piztuko ote da oraingoan eztabaidarik? Eta eztabaida hori “ahotsaz eta letraz” izango ote da? Ala datorren urtean eman behar dudun hitzaldi baten gaiaz? Zernahi gerta daiteke espazioa eta denbora zein bere aldetik dabilzan aro honetan.

...

<http://www.bilbozaharra.com/euskera/forum/documents/ATXAGA04-1-22.doc>

2.2. Orain, irakurri Etxenike fisikariaren eta Atxaga idazlearen hitzaldietatik ateratako sarrerarik biak (1. Testua eta 2. Testua), eta taldeka, adierazi bakoitzak erabilitako interesa pizteko estrategiak jarraian dagoen koadroan. Ondoren, aukeratu zure sarrerarako erabiliko duzuna edo dituzunak.

INTERESA PIZTEKO ESTRATEGIAK	1.	2.	Nire sarrerarako
Galdera erretorikoak			
Erregistro aldaketak			
Umorea			
Autoritate baten aipua			
Aipu txundigarri baten aipamena			
Partekatutako esperientzia			
Historiatxo bat kontatzea			
Beste batzuk:			



Orain arte ikusitako hitzezko ezaugarriekin batera, ez ahaztu ahozko jardunetan, ez-hitzezko ezaugarriak ere oso garrantzitsuak direla.

### 3. jarduera. Ez-hitzezko ezaugarriak.

Entzun al duzu inoiz hurrengo esaera hau?


Bestaldera begira hitz egiten ari  
denarekin kontuz!

Askotan, gure gorputzak ezeztatu egiten du gure ahotik ateratzen dena. Inoiz gertatuko zitzaizuen amari edo aitari gezurtxoren bat esaten saiatzea, eta haiek momentuan konturatzea gezurretan zenbiltzatela. Zu ezagutzen zaituzten moduan ezagututa oso erraza da haientzat zure gorputzak adierazten dituen seinaleak interpretatzea. Aktore edo gezurti bikaina ez bazara behintzat!

Aurpegia, eta batez ere, begiak oso inportanteak dira komunikazioan.

#### Prozedura:

Aurpegia ondoen definitzen duen emozioaren izena jarri argazki bakoitzari. Zuk jarri duzuna eta zure ikaskideak jarri dutena konparatu.



3.2. Baina aurpegia ez da gure sentimenduen salatzaile bakarra, gorputz osoak betetzen du lan hori.

Taldeka begiratu hemen duzuen argazkia. Euren aurpegiek eta gorputzek adierazten dutenek lagunduta prestatu pertsona bi horien arteko harremanari buruzko istoriotxo bat.



Ea lortzen duzuen argazki horren antzekoren bat biharko! Klasera eraman dezakezue eta gelakideei azaldu nortzuk diren bertan agertzen diren pertsonak eta zein den euren arteko harremana.

AURREKO JARDUERAKO ARGAZKIAN: Greg Lemond eta Lance Armstrong 2003ko Tourraren aurkezpenan. Aste batzuk lehenago, Armstrong dopatu egin zela salatu zuen Lemondek.

**3.3.** Taldeka pentsatu nola jokatu behar duen gure gorputzak, burutik hasita oinetaraino, jende aurrean hitzaldi bat ematerakoan. Gero, irakurri Paul Archer-ek horri buruz idatzitakoa eta atera ideia garrantzitsuenak. Ondoren, aurreko urteetan ahozko jardunean kontuan izan beharrekoak gogoratu eta idatzi.



Helbide elektronikoa honetan, ahozko jardunean gorputzaren mintzaira dela-eta, [Paul Archerrek](http://www.few-good-sites.com/self-management/article564.htm) idatzitakoa duzu.

<http://www.few-good-sites.com/self-management/article564.htm>

### GORPUTZAREN MINTZAIRA

### AHOZKO AZALPENETAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Ahotsa...

#### 4. jarduera. Sarrera prestatzen.

Gorputza ohitu egin behar da jende aurrean hitz egitera, 3. jardueran aztertu dituzuen jokaerak ez direlako berezkoak. Beraz, praktikatu beharra dago!

##### Prozedura

Bakoitzak sarreratxo bat prestatuko du; horretarako, 2. jardueran ikusitako baliabideen antzekoak erabili beharko dituzue. Pentsatu sarrera hori azken ekoizpenerako baliagarria izan litekeela eta pentsatu sarrera entzuleen arreta erakartzeko baliatu behar duzuela. Sarreratxoa prestatu ondoren, klasearen aurrean aurkeztuko duzue.

##### AHOZKO JARDUNA PRESTATZEKO PROZEDURA

- Prestatu zure sarrera.
- Interesa pizteko balio izango duen adibide edo anekdotaren bat sartu.
- Argi utzi zeri buruzkoa izango den hitzaldia.
- Konprobatu 2. jardueran ikusitako baliabideak erabili dituzun eta azalpenik behar duen hitzik dagoen.
- Egin sarreraren eskematxo bat, gidoi bezala erabil dezakezuna.
- Praktikatu talde barruan denen aurrera atera baino lehen, eta ahalegindu 3. jardueran esandakoak praktikan jartzen.



Ez ahaztu helburua azken ekoizpena dela, beraz elkarri laguntzen badiozue askoz hobeto aterako zaizue denoi. Elkarri laguntzeko, ikaskideen jarduna kritikatu behar duzue; horretarako, jarraian agertzen den fitxa bete behar duzue. Talde bateko kideek beste talde bateko hiru kideak ebaluatuko dituzue, baina beste guztien jardunak ere arretaz entzun, beti ikasten da zer edo zer!

AHOZKO JARDUNA KONTROLATZEKO FITXA	1. ik	2. ik	3. ik
Lehen pertsona erabiltzen du.			
Aditz modalak erabiltzen ditu.			
Lexiko tekniko-zientifiko gutxi erabiltzen du.			
Entzuleak inplikatzeko bigarren pertsona erabiltzen du			
Lexikoa hartzaileari egokiturikoa da.			
Begiak hartzaileei begira mantentzen ditu.			
Eskuekin eta besoekin egindako keinuak egokiak dira.			
Gorputza lasai eta era naturalean du.			
Geldirik eta zurrun egon beharrean era naturalean mugitzen da jende aurrean.			
Eskuak ez ditu poltsikoetan sartuta eta besoak mugitzen ditu azalpenean laguntzeko.			
Lasai dagoela ematen du.			
Intonazioa egokia da.			
Ahots-doinu aproposa du.			
Ondo ahoskatzen du.			
Hitzaldia zeri buruzkoa den azaldu du.			
Gaiari buruzko interesa piztu dit.			



Public Speaking  
in Action!



Kontuan izan ikasten ari zaretela eta zuen ikaskideen kritikak ikasteko balioko dutela. Saiatu era positiboan onartzen kritika horiek eta duzuen energia ohitura desegokiak aldatzeko erabili.

Gogoratu honako atsotitz hau:

"Dakienik ez da jaiotzen"

Ezagutzen duzu pareko atsotitzik euskaraz edo beste hizkuntza batean?

"Grow old with me; the best is yet to be..."

Atsotitzak edo esaera zaharrak hainbat eta hainbat mendeetan zehar gure herrian mantendu diren esamoldeak dira. Hauek gure arbasoek guri emandako altxorra direla esan dezakegu.


Hona hemen euskal atsotitz batzuk eta euren gaztelaniako baliokideak. Joko honek unitatearen amaieran emango dituzuen hitzaldien ordena erabakitzeko balioko digu: atsotitz gehien asmatzen duen taldea azken aterako da, eta gutxien asmatzen duena, berriz, lehenengo.

1. Eder edo itsusi zein begik ikusi.	a. En casa de herrero cuchillo de palo.
2. Bururik nekatzen ez duenak, hankak nekatu behar.	b. Le dijo la sartén al cazo: "vete de aquí cochino".
3. Han eta hemen txakurrak oinutsik.	c. Hombre prevenido vale por dos.
4. Gaitz asko, onerako.	d. En todas partes cuecen habas.
5. Errementariaren etxean zotza burduntzi.	e. Antes se coge al mentiroso que al cojo.
6. Zozoak beleari "ipurbeltz"	f. Donde no hay cabeza, todo son pies.
7. Zakur zaunkaria nekez hozkaria.	g. Lo lejano es exagerado.
8. Nolako zura, halako ezpala.	h. Mucho vino, poco tino
9. Gezurrak buztanak labur.	i. Agua pasada no mueve molino.

10. Eroen artean, tontoa alkate.	j. Las apariencias engañan
11. Erbiak begiak zabalik lo.	k. De tal palo tal astilla.
12. Urrea esan eta urria izan.	l. El amor es ciego.
13. Ando goxoak lau begi eta oinik ez.	m. Perro ladrador poco mordedor.
14. Urrutiko intxaurrak hamalau, bertara joan eta lau.	n. En el país de los ciegos el tuerto es el rey.
15. Urik barik errota ez dabil.	o. No hay mal que por bien no venga.

Berdinketak hausteko, beste koadro honetako atsotitzak lotu; ingelesez eta euskaraz daude, ea nola moldatzen zareten.

1. Usteak erdi ustel.	a. Money is a good servant, but a bad master.
2. Dakienik ez da jaiotzen.	b. There's no smoke without fire.
3. Urrea mintzatu, denak isilik.	c. Talk of the celestials and the angels appear.
4. Dirua, mutil ona, nagusi txarra.	d. When money speaks the world is silent.
5. Sua den tokitik kea.	e. No man is born wise and learned.
6. Otsoa aipatu eta otsoa atean.	f. Gossiping and lying go together.



## 2. LAN-SEKUENTZIA TESTUAK EGOKITU

### 5. jarduera. Informazioa biltzen.

Dagoeneko erabakita duzue zuen hitzaldiaren gaia. Orain, jarduera honetan informazioa bilduko duzue. Horretarako, gogoratu gaztelaniako unitatearen barruan 4. jardueran, informazioa bilatzeko jarraitutako prozedura.

#### Prozedura

Taldeka, gaztelaniako unitateko Actividad 4ra joan eta bertan proposatzen diren baliabideetara jo, zuen hitzaldirako informazioa lortzeko. gaztelaniako unitatean egin duzuen legez, ateratako informazioa fitxetan antolatu eta datu guztiak karpeta batean jaso.

Informazioa ateratzeko honako helbide elektroniko hauek ere erabil ditzakezue:

Euskaraz:

<http://www.zientzia.com/>

<http://eu.wikipedia.org/>


<http://www.berria.info/hemeroteka.php>

Gazteleraz:

<http://www.tendencias21.net/>

<http://www.cienciaydeporte.net/>

<http://www.monografias.com/trabajos13/artrevis/artrevis.shtml>



## 1. fitxa

Informazio iturria:

Egilea:

Izenburua:

Editoriala eta bilduma:

Interesgarriak diren atalak:

Zertarako erabil ditzakegu?

## 2. fitxa

Interneten bilatzen:

WEB helbidea:

Informazio interesgarria:

Zertarako erabil dezakegu?



## 6. jarduera. Norentzat da testua?

Eman behar duzuen hitzaldia gelako kideentzat izan beharrea DBHko 1. mailako ikasleentzat izango denez, kontuz! Azken ekoizpenaren hartzailea nor den kontuan izan beharra dago, berak mugatuko baitu zuon hitzaldia, ez ahaztu zein den azalpen testuaren helburua!

### Prozedura:

Hurrengo orrialdeko testuak irakurri eta hiruko taldean aztertu. Ordena itzazu zailtasunaren arabera. Testuen ezaugarriak ikusita esan, zuen ustez, zeintzuk diren zaila edo erraza izatearen arrazoiak.

Testu zailena:


EZAUGARRIAK:

Testu errazena:

EZAUGARRIAK:

Erdibideko testua:

EZAUGARRIAK:




Lasai! Hurrengo ariketan testuok aztertuko ditugu eta ariketa honetako erantzunetara bueltatuko gara.

### 3. testua

#### Eguzki sistemako planetak ezagutzen

Eguzkia da eguzki sistemako elementurik garrantzitsuen. Eguzki sistemako 9 planetak Eguzkiaren inguruan dabilta biraka, bakoitza bere orbitan. Eguzki sistemako planetak bi taldetan sailkatzen dira:

- **Barruko planetak:** Merkurio, Artizarra, Lurra eta Martitz.
- **Kanpoko planetak:** Jupiter, Saturno, Urano, Neptuno eta Pluton.



Barruko planeten eta kanpoko planeten artean milaka asteroide daude mugimenduan.


**Asteroideak** harri itxurako elementuak dira.

Astronomo batzuek esaten dute asteroideak garai bateko planeta txiki baten hondarrak direla. Beraien ustez, hondamendi kosmikoren batean txiki-txiki eginda geratu zen planeta hura.

### 4. testua

#### **Energia eta ATP**

Izaki bizidunak sistema energetiko irekiak dira. Horietan, izaki bizidunaren egitura bera, energia-eta materia-fluxua egotearen baldintzapean dago. Bi erreakzio kimiko mota daude: **erreakzio endergonikoak**, energia ekarpena behar dute gertatzeko eta **erreakzio exergonikoak**, energia askatzen dutenak.



**Adenosintrifosfata** edo **ATP** metabolismoan garrantzi bizia duen nukleotidoa da. Energia kopuru handiak ditu bere lotura ester-fosforikoetan. Modu horretara, lotura horiek haustean, bertan gordetzen den energia askatu egiten da, eta erreakzio kimiko endergoniko batean parte hartzen duen beste molekula bati transferitu ahal izango zaio.

**Katabolismoa** osatzen duten erreakzio kimikoak exergonikoak dira. **Anabolismoa** osatzen duten erreakzio kimikoak endergonikoak dira; beraz, prozesu horrek erreakzio katabolikoetatik, fotosintetik edo kimiosintetik datorren energia-hornidura behar du.

## 5. testua

### Kirolariaren elikadura



Adin jakin batetik aurrera, kontu handiz ibili behar da kirola egiterakoan.

Kirola egitea osasuntsua da, baina baldintza egokietan egitekotan bakarrik. Kirola egiteko ezinbestekoa da, alde batetik, bakoitzak bere erritmoan jardutea eta, bestetik, ongi elikatzea. Izan ere, kirola egiteko indarrak gorputzak elikaduratik jasotzen ditu eta kirolariaren osasuna, indarrak errekuperatu eta zauriak sendatzeko gaitasuna, berari lotuta daude. Noski, dietan ahal bezain beste murriztu behar da alkohola. Kirolari guztiek ez dute elikadura bera izango, baina oro har elikadura orekatua eduki behar dute. % 12-15 proteina, % 23-30 lipido eta % 55-60 gluzidoz osatutako dieta da egokiena kirolariarentzat. Proteina iturri nagusiak haragia, arraina, esnea, gazta eta soja dira. Lipidoak iraupen kiroletarako dira batez ere energia iturri. Lipidoak animalia jatorrikoak (gurina, arrain batzuk, arrautzak, gaztak, hestebeteak) edo landare-jatorrikoak izan daitezke (olioak, olibak...). Gluzidoak (azukreak) esfortzu handietarako energia iturri dira batez ere. Bi gluzido-mota bereizten dira: gluzido sinpleak, fruitu, barazki eta gozokietan aurkitzen direnak, eta, gluzido konplexuak, zereal, patata eta lekadunetan daudenak. Hobe da zereal integralak jatea zuntz gehiago dutelako eta B taldeko bitaminetan aberatsak direlako.

6.2. Testuak berriro irakurri ahala azpimarratu kolore ezberdinak erabilia honako hauek:

- Izenak: tekniko zientifikoak, konkretuak eta abstraktuak
- Perpausak: bakunak eta elkartuak

Izen **konkretuek** zentzumenen bidez antzeman daitezkeen izaki edo objektuak izendatzen dituzte.

Izen **abstraktuak** zentzumenen bidez zuzenean ezin antzeman daitezkeen ideia edo nolakotasunak izendatzen dituzte.

Perpaus **bakunak** aditz bakar bat dute, eta, horrenbestez, predikatu bakar bat.


Perpaus **elkartuek** forma pertsonaleko aditz bat baino gehiago (eta, horrenbestez, predikatu bat baino gehiago) dituzte.

Amaitzeko, bete BEHAKETARAKO TXANTILOIA, BAI edo EZ jarritz, eta posible denean gutxi edo asko jarritz.

BEHAKETARAKO TXANTILOIA			
	3. testua	4. testua	5. testua
1. Hitz tekniko zientifikoak			
2. Hitz konkretuak			
3. Hitz abstraktuak			
4. Perpaus bakunak			
5. Perpaus elkartuak			
6. Irudiak			
7. Espresio matematikoak			
8. Testu laburra			
9. Egitura zaileko testua			
10. Paragrafo bakoitzean ideia bakarra			
11. Kontzeptu zailak eta ezezagunak			

Aztertu fitxaren emaitzak eta konparatu lehen ikusi dituzuen ezaugarriekin. Hori egin eta gero, zertan uste duzue datzala testuaren zailtasuna? Nortzuk uste duzue izan daitezkeela testu bakoitzaren hartzaileak?

3. testuaren hartzaileak: Zergatiak:
4. testuaren hartzaileak: Zergatiak:
5. testuaren hartzaileak: Zergatiak:



## 7. jarduera. Nola erraztu testua.

### Prozedura

Binaka, irakurri eta konparatu testu bi hauek (6.a eta 7.a). Zein da errazagoa ulertzeko? Zergatik?

Gero, eman zure iritzia talde handian. Eta ondoren, irakurri "AZALPEN TESTUAK EGOKITZEKO ESTRATEGIAK" koadroa eta bete "ZERK EGITEN DU TESTUA ERRAZAGO" koadroa. **Arbelean zuzendu eta testuan estrategiak adierazi.**

### 6. testua

**Txantxarra**

Zertxuk  
berria



*Hortzen dabele bakterioei esmaltzean jaso eta zuloa egiten dute.*      *Txantxarra dentinara sartzen da. Nerbioak hasieratu egiten dira. Ondorioz, horriak eratu egiten dira.*      *Ardurak, infekzio arrakatsak osatzen dituzte eta zuloa zulo handiagoa bihurtzen du.*

**Txantxarrak hortzeginetako esmaltea eta dentina suntsitzen ditu. Zer diren horiek? Dentina hortzak osatzen dituen substantzia nagusia da, hezuraren antzekoa, baina askoz gogorragoa. Esmaltea, berriz, dentinaren gaineko material gogorra da, hortza osorik estaltzen duena.**

**Txantxarrak, beraz, esmaltea eta dentina erasotzen dituenean, zuloak eragiten ditu. Txantxarra zergatik sortzen den ez da oraindik ondo ezagutzen, baina uste da hortzen ertzetan gelditzen diren janari hondarren karbohidratoekin loturik dagoela.**


**Ondorioz, esan daiteke elikadura motak eragin handia duela txantxarraren sorreran. Karbohidratotan aberatsak diren jakiek bidea ematen diote txantxarrari. Aldiz, proteinetan aberatsak diren elikagaiak, oso onuragarriak dira hortzetarako, batik bat murtzikaketa indartsu eta luze eskatzen badute.**

**Txantxarrak, murtzikatzeko erabiltzen dugun tokia erasotzen du bereziki. Hortzen aurreko eta atzeko aldeak askoz ere babestuago daude ezpainek, mihiak eta listuak garbitu egiten baitituzte.**

**Txantxarra maizago azaltzen da nerabezaroan eta zahartzaroan. Honen aurkako babesik onenak, dieta sanaa, ahoa hortz-eguzkilaz behar bezala garbitzea eta umeen kasuan, fluoroaz tratatzea dira.**


Idatzizko testuak errazten.  
DURANGOKO BERRITZEGUNEA. 2003ko iraila

## 7. testua



# Txantxarra

Maldakitua  
hartzak



*Hortzetan dardex bakterioek esmaltea jain eta zuloa egiten dute.*

*Txantxarra dentinara sartzen da. Hortzik asko sortzen dira. Ondorioz, hartzak eratu egiten dira.*

*Azkenik, infekzioa zuntzakaren ondoan dagoen irteeratik eta zorroa edo materiala sor dezake.*

**Dentina****Esmaltea**

Txantxarrak haginetaiko esmaltea eta dentina hondatzen ditu.

- o **Dentina**: hortzak osatzen dituen substantzia da. Hezurra bezalakoa da, baina askoz gogorragoa.
- o **Esmaltea**: dentinaren gaineko material gogorra. Hortza osorik tapatzen du.

Askotan janari-hondarrak gelditzen dira hortz eta haginaren artean. Horregatik sortzen da txantxarra. Txantxarrak esmalteari eta dentinari eraso egiten die. Ondorioz, txantxarrak zuloak eragiten ditu haginetaiko.

Elikadura motak (guk normalean zer jaten dugun) eragin handia du txantxarra sortzeko. Elikadura desegokiak txantxarra sortu ahal du:

- o **Proteina** asko duten janariak (haragia, arrautzak, arraina...) oso onak dira haginetaiko.
- o **Karbohidrato** asko (azukre asko) duten janariak, ostera, txarrak dira: errazago usteltzen dituzte haginak.

Txantxarra gaztaroan eta zahartzaroan agertzen da batez ere.

Nola babestuko ditugu gure haginak txantxarraren kontra? Dieta sana egin, haginak ondo garbitu eta ume txikiak fluoroa hartu.

Iñstituzio tekniko arretan.  
DURANGOKO BERRITZEGUNEA 2003ko iraila

21

**ZERK EGITEN DU TESTUA ERRAZAGO?**

## **AZALPEN TESTUAK EGOKITZEKO ESTRATEGIAK**

Testuaren maila hartzailearen mailari egokitu behar zaio, ulermena bermatzea izango baita gure helburu nagusia.

Testua errazteak ez du esan nahi edukien maila jaitsi behar denik.

Testua erraztea ez da, berez, laburtzea. Beste era batera esanda, laburtzea ez da nahitaez ulermena bermatzeko biderik egokiena. Askotan, berriz, testua luzatu beharrean aurkituko gara. Izan ere, testuliburu batzuen akats nagusia horixe izan ohi da: informazioa laburtzeagatik, ez da ezer ulertzen, ez dute ezer esaten.

### **Estrategia paratestualak:**

Tipografia eta irudiak egokitzea edota gehitzea idatzizko testuak ulerterrazago bihurtzeko estrategia interesgarria izan ohi da. Adibidez:

- Idatzizko testuak kolorezko irudiz hornitu daitezke, marrazkiak erabili (argazkiak hobe), zenbaki askoren ordezkari grafikoa...
- Markatzaileak jar daitezke: ikurrak, ertzak eta itzaldurak, buletak...
- Erabili tamaina desberdinak, (lodia, ...) eta letra - tipoak testu-zati desberdinak bereizteko edota nabarmentzeko.

Dena dela, tipografia oso garrantzitsua izanik ere – sarritan, atsegingarria eta erraza ere bai...–, ez dugu ahaztu behar testuaren “ kanpoaldea ” ez dela, berez, funtsezkoena.

### **Egiturari dagozkion estrategiak:**

- Izenburuak (tituluak eta azpitituluak) testuaren egitura argitzeko erabili ohi dira.
- Ideia bat paragrafo bat.
- Informazioen hurrenkera zentzu logikoan eman : ordena kronologikoan, kausa-ondorioa, azalpena-adibideak... Testuaren egituraren ardatz argia erabiltzea komeni da:
- Testu antolatzaileak erabili.

### **Estrategia linguistikoak:**

- Testua ulergarria izateko ez du nahitaez laburra izan behar, zuzena eta ondo idatzia baizik: ideiak ondo antolatuta (koherentzia) eta hitzak ondo lotuta (kohesioa).
- Hitz ezezagunak testuan bertan azaldu (azpian, alboan...). Parafraasiak edo hitz ezezagunak erabili, adibideak, irudiak...
- Komenigarria da erreferentziak mantentzea testuaren zentzua ez galtzeko.

**Idatzizko testuak errazten DURANGOKO BERRITZEGUNEA 2003ko iraila.**  
**Adaptazioa**

## 8. jarduera. Testua egokitzen.

Ikusi dugunez mezuaren transmisioa lortzeko oso garrantzitsua da testua hartzaileari egokitzea. Azken ekoizpenean, DBHko 1. mailako ikasleak izango dira gure audientzia eta eurentzako egokia den testua lortu beharko dugu. Nola? 7. jardueran ikusitako teknikak erabilita.


### Prozedura

Taldea, 5. jardueran aurkitutako testuren bat aukeratu eta DBHko 1. mailako ikasleentzat egokitu.

Bakoitzak zati bat egokituko du, gero, testu osoa denon artean bateratuko duzue. Hori egiterakoan, taldeko kide bakoitzak besteei azaldu behar die zer egin duen bere atala errazteko.

Ondoren, beste kideek euren adostasuna edo desadostasuna azalduko diote.

Zuzendu beharrekoak zuzendu eta idatzi honako koadro honetan.



### TESTUA ERRAZTURIK (ZATIA)

### 3. LAN-SEKUENTZIA INFORMAZIOA EGITURATU ETA KOHESIONATU

#### 9. jarduera. Kirola eta zientzia: dopina eta entrenamendua.

##### Prozedura

Teknopolis programako bideoa birritan ikusiko duzue. Lehenengoan, arretaz entzun eta bertan azaldutako ideia nagusiak idatzi; gero, ideiak taldekideekin bateratu. Ea nork lortzen duen informazio gehien jasotzea! Bigarren entzunaldian, entzutearekin batera egin azalpen bakoitzaren gidoia.

Dopina	Entrenamendua



Ez badituzue gidoiak atera, lasai, irakasleak Teknopolis programaren [transkripzioa](#) emango dizue, gidoiak osotzeko. Gero, arbelean, denon artean bateratuko dituzue.

Bideoko azalpen biek oso egitura ezberdina dute, ezta? Konpara itzazue. Egituraren bat zuen hitzaldirako aproposa izan daiteke? Zergatik?

## 10. jarduera. Hitzaldiaren eskema.

### Prozedura

Taldeka, egin zuen hitzaldiaren lehenengo eskema orokorra, eta labur azaldu atal bakoitzean zertaz hitz egingo duzuen. Eman eskema alboko taldeari zuzentzeko, eta zuek euren zuzendu, zuzenketak arrazoituz.

ESKEMA	BAI	EZ
<p><b>Sarrera:</b> Hitzaldiaren justifikazioa, interesa pizteko balio izango duen adibide edo anekdotaren bat. Argi dago zeri buruz izango den hitzaldia.</p> <p><b>Garapena:</b> Atalak eta azpiatalak orden logikoan eta koherentean ordenaturik daude.</p> <p><b>Amaiera:</b> Ideiarik garrantzitsuenak laburbildu eta azalpena era egokian bukatu dute.</p>		
IRADOKIZUNAK:		

Orain, zuon hitzaldiaren gorputza idazten hasteko garaia heldu da. Ez ahaztu testuaren koherentziak eta kohesioak testuaren irakurgarritasuna eta ulergarritasuna bermatzen dutela. Horiek lortzeko oso lagungarriak dira aurreko unitateetan ikusitako lokailu edo konektoreak eta testu antolatzaileak (informazioa kohesionatzeko jardueran erabili beharko dituzue, lan-sekuentziaren amaieran jarri ditugu).

Baina badaude diskurtsoa garatzen laguntzen diguten beste baliabide batzuk ere, erreferentzia errekuperatzeko mekanismoak edo anaforak

deiturikoak, alegia. Horiekin guztiekin paragrafoen arteko eta paragrafoko esaldien arteko uztardura indartzea lortzen da. Mekanismo hauek oso antzekoak dira euskaraz eta gaztelaniaz; horregatik, gaztelaniako unitatean duzuen koadroa lagungarri izango zaizue hurrengo jardueran dudarik izanez gero.

## 11. jarduera. Erreferentzia ez galdu.

### Prozedura

Binaka, aztertu anaforen edo erreferentzia-mekanismoen ondoko koadroa. Hitzak ezagunak dira, beraz, ahalegindu bakoitzaren ezaugarriak argitzen. Lagungarri izango zaizue adibideren bat idaztea.

1. Errepikapenak _____
2. Ordezkapen lexikalak: 2.1. Sinonimia _____ 2.2. Hiperonimia/Hiponimia _____
3. Ordezkapen pronominalak: 3.1. Pertsona izenordainak _____ 3.2. Erakusleak _____ 3.3. Aditzondoak _____
4. Perifrasia _____
5. Elipsiak: _____

Unitatearen amaieran duzue erreferentzia-mekanismoen taula adibide eta guzti, ariketa hau egiteko arazoak izanez gero kontsultatzeko prest.

11.2. Begiratu 6. jarduerako 3-5 testuak eta adierazi testuetan agertzen diren erreferentzia-mekanismoak. Eta gero, konparatu testu errazenean eta besteetan erabiltzen direnak.

	3. testua	4. testua	5. testua
Errepikapenak			
Sinonimia			
Hiperonimia Hiponimia			
Perifrasia			
Izenordainak			
Erakusleak			
Aditzondoak			
Elipsia			
Besterik:			

11.3. Irakurri jarraian agertzen diren testu zatiak eta adierazi nori edo zeri egiten dioten erreferentzia beltzez dauden espresioek. Eta urdin argiz agertzen direnek?

### 8. testua

Ortorexia duenak ezin du jan kontrolatzen ez duena, eta, ondorioz, ez **da** gai bizitza sozial normalak sortzen **dituen** konpromiso edo ospakizunetan parte hartzeko. **Hori** dela eta, bizitza sozial eta familiarra asko murrizten du. **Oso pertsona zorrotza da**, obsesiboa eta **bere** buruarekin oso estua eta gogorra.



Elikadurarekiko **erradikalismo horrek** osasun-arazo larriak ekar **dakizki**ke, gainera. Izan ere, askotan, **kontrol eta zorrotzasun horretan**, ez dira gutxieneko kaloria- eta bitamina-

beharrak asetzen. **Gehienak** oso argal egoten dira, eta anemia, desnutrizioa edo osteoporosia izaten dituzte, eta, **horrez** gain, depresioa, zenbait gaixotasun psikologiko eta isolamendu soziala.

## 9. testua

Eski gero eta arinagoak, iraunkorragoak, gogorragoak eta **sentikorragoak** egiteko, egurra, beira-zuntza, titanioa, karbono-zuntzak edota kevlarra nahasten dira besteak beste. Beraz, **material-konbinazio** onenaren bila, kirolariek eta kimikariek **elkarrekin** egiten dute lan.



**Horretaz** gain, **argizari berriak** asmatu dira bai elur gogorrean eskiak leun-leun irristatzeko bai arropak estali eta hotzaren aurka **babesteko**. Adibidez, Kaliforniako Unibertsitateko kimikari Donatelly-k adierazi duenez, domina olinpikoaren irabazle batzuek **berak** asmatutako Super HotSauce argizaria erabili zuten. **Argizari horren** ezaugarri nagusia **hau da**: mendiaren goialdetik behealdera dagoen egoera-aldaketari erantzuten diola.

## 10. testua

**Basamortuan, etxean bezala**

**ESAk** asmatu duen dendak batek basamortuan txoko abegitsu bat izateko aukera ematen du.

**Denda** puzgarria da, arina, eta erraz eramateko modukoa, puztu gabe dagoenean toki gutxi hartzen **baitu**. L itxurakoa da, eta goialdean irekita dago, tenperatura egokiari eusteko behar **den** aire-lasterra sortzeko. Izan ere, basamortuan, airea azkar hozten da lurzorutik urrundu ahala. **Hori** aprobe txatzeko, haizemaile elektriko bat du, goiko airea barrura sartzeko.

Energia elektrikoa estalkian txertatuta duen eguzki-panel baten bidez lortzen du. Gainera, estalki horrek eguzki-erradiazioetatik babesten du.

Denda egiteko, espazioko paraxutak josteko eta larrialdietarako puzgarrietan oinarritu **dira**, eta ingurune gogorretarako dago diseinatuta.



## 11. testua

### Marrazoa eredutzat hartuta

Nolanahi ere, **Speedok** ikerketa ugari egin ditu bainu-jantzientzako material egokiena diseinatzeko, eta azkenaldian marrazoetan jarri **du** arreta. Alabaina, ez **dira** ez bakarrak ez lehenak marrazoak eredutzat hartzen.



Marrazoaren larruazala ez da leuna, zimurdura txiki batzuk **ditu**, eta **horri** esker lortzen du urak ukitzen duen azalera txikitzea. Gainera, muturrean **zimurdura horiek** handiagoak dira atzealdean baino; hartara, turbulentzia txikiagoa da.

Bada, 1987ko **Amerikako Kopa** irabazi zuen belaontziaren kroskoak testura berezia zuen. Hain juxtu, **marrazo-azalaren** testura imitatuz egin zuten. **Besteekiko** abantaila nabarmena **zeukala** ikusita, ordea, **handik** aurrera debekatu egin zuten **testura hori** erabiltzea.

Askotan, erreferentea testutik kanpo dago. Igorleak uste du hartzaileak eta berak munduaren ezagupen berdina, informazio berdina, konpartitzen dutela eta horregatik egiten dio erreferentzia. Baina kontuz testua ekoizterakoan! Agian entzuleek ez dute zuk daukazun informazio guztia eta!

## 12 jarduera. Kausa-ondorioa egiturak lantzeko ariketa.

### Prozedura

Azpimarratu 11. jarduerako testuetan agertzen diren testu antolatzaileak eta lokailuak, ondoren adierazi zertarako erabiltzen diren.

Kausa-ondorioa adierazteko	Informazioa eransteko	Adibidea emateko	Aurkaritza adierazteko	Beste batzuk

**12.2.** Kausa-ondoriozko egituretan batzuetan kausa edo arrazoia lehenengo agertzen da eta ondorioa, ostean; beste batzuetan, berriz, alderantziz. Adierazi 11. jarduerako testuetan agertzen diren kausa eta ondorioak.

Gero, berridatzi jarraian agertzen den perpaus bakoitza, bertan adierazitako kausaren eta ondorioaren ordena aldatuz. Eta lokailu berria erabiliz.

1.- Urtebete eta hamar hilabeteko zigorra ezarri diote dopinaren eragilea izateagatik

---

2.- Oina oso organo espezializatua eta garrantzitsua dugu, beraz, bereziki zaintza eta arreta berezia eskaini behar zaio.

---

3.- Batzuetan kirolariak berak jartzen du modan janzkera bat. Izan ere, goi-mailako atletak izarrak dira gure gizartean.

---

4.- Goi-mailako kirolari askok immunitate-sistema desorekatua dute ariketa fisiko gogorra egiten dutelako.

---

5.- Kirolarien immunitate-sistema guztiz ahulduta geratzen da, azken batean, immunitate-zelula elikagai gutxiago dute.

---

6.- Aditu batzuen ustez, aurrez ondo prestatuz gero ia edonor izan daiteke eliteko kirolaria.

---

7.- Eserlekuaren aurkako marruskadura dela eta, txirrindulari askok arazoak izaten dituzte ugaltze-aparatuan.

---

8.- Hainbat kirolari dopina hartzen hasi ziren hirurogeiko hamarkadan ez zekiten arriskutsua zenik eta.

---

9.- Gaur egungo bizikletek bospasei pinoi eta bizpahiru plater dituzte, hori dela eta, ia edonork igo dezake aldapa mitikoren bat.

---

10.- (...)

11.- (...)

12.- (...)

13.- (...)

**12.3.** Begiratu egunkariko kirol atalean eta aukeratu testu pare bat non gaztelaniako kausa-ondorioa adierazteko lokailuak agertzen diren, idatzi gaztelaniako lokailuak honako koadro honetan.

CONECTORES DE CAUSALIDAD	

Lokailu hauek gaztelaniako azken ekoizpena idazteko erabil ditzakezu.

### 13. jarduera. Informazioa kohesionatzen.

Orain, hasi zaitetze zuon eskema garatzen eta hitzaldiaren gorputza eraikitzen. Gogoratu unitate honetan eta beste unitateetan ikusitako kohesio mekanismoak, ondoren zuon testua ondo josteko erabili.

Ez ahaztu testu osoaren egitura nagusia kausa-ondorioa dela, baina beste batzuk ere agertuko direla.

Azkenik, kontuan izan hitzaldia zuen audientziarentzat egokitu behar duzuela, eta horrek testua erraztea eskatuko dizue (sinonimoak, azalpenak, adibideak...).

#### Prozedura

Taldea, 10. jardueran egindako eskemaren garapenaren atalak banandu taldekideen artean, eta gero, bakoitzak bere atala garatu behar du. Amaituta duzuenen, eman zure taldeko bati irakurtzeko, eta bete hurrengo orriko zuzenketa-irizpideak txantiloia. Ondoren, komentatu zuon artean testu bakoitzean zer edo zer hobetzerik dagoen, eta horrela bada, zuzendu testua.



Unitatearen amaieran zuon testua ondo lotzeko eta antolatzeko erabilgarriak izango diren koadro bi dituzue: bata, lokailuena, eta bestea, testu antolatzaileena. Kontsulta itzazu.

	ZUZENKETA-IRIZPIDEAK	1.	2.	3.
EGOKITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informatzeko xedea betetzen du testuak</li> <li>• 3. pertsonan idatzita dago</li> <li>• Testu objektiboa da</li> <li>• Erregistroa egokia da (landua, lagunartekoa)</li> <li>• Entzuleei egokituta dago</li> </ul>			
KOHERENTZIA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Testuak informazio garrantzitsua ematen du</li> <li>• Informazioa errepikatu egiten da</li> <li>• Informazio gehiegi dago</li> <li>• Datu kontraesankorrak daude</li> <li>• Paragrafo bakoitzak ideia bat garatzen du</li> <li>• Testuaren egitura argia da</li> </ul>			
KOHEESIOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Paragrafoak euren artean lotuta daude</li> <li>• Lokailuak ondo erabili ditu</li> <li>• Erreferentzia galdu egiten da</li> <li>• Puntuazio-akatsak daude</li> </ul>			
ZUZENTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer aditz denbora eta modu da nagusi?</li> <li>• Zer nolako perpausak dira nagusi?</li> <li>• Perpausak sintaktikoki ondo egituratuta daude</li> <li>• Nahaste edo akats lexikoak</li> <li>• Akats ortografikoak</li> </ul>			

*Kurrikulu desberdinetarako materiala. B01/B07/B08 BERRITZEGUNEAK*

## ERREFERENTZIA-MEKANISMOAK

**Errepikapena:** Elementu bera errepikatzen dugunean, mekanismo hau egokia da ideiak argi geratzea nahi denean, aldiz, testuaren kalitatea pobretu dezake. (Adib.: **Gizon** bati galdetu diogu helbidea. **Gizonak**, ordea, ez digu erantzun nahi izan).

**Ordezkapen lexikala:** Aurrekaria errepikatu beharrean, izen horren antzeko esanahia duen beste izen bategatik ordezkatzean datza.

- **Sinonimia:** Testuinguru horretan esanahi bera duen beste hitz bategatik ordezkatu (Adib.: **Andre** bat hurbildu zitzaigun. Momentuan konturatu ginen zein zurbil zegoen **emakumea**).
- **Hiperonimia:** Adiera zabalagoa duen hitz bategatik ordezkatu (Adib.: Jokalariak kolore bereko **elastikoak** zituztenez, kanpokoek **arropa** aldatu beharra izan zuten).
- **Hiponimia:** Adiera murriztagoa duen hitz bategatik ordezkatu (Adib.: **Kirolariak** erretiratzeke asmoa zuen. **Pilotariak** azken txapela hamar urte arinago lortua baitzuen).

**Ordezkapen pronominala:** Aurrekaria (izena edo izen sintagma) pertsona izenordain, erakusle edo aditzondo batekin ordezkatzean datza.

- **Pertsona izenordainak** (bera, berak, eurak...): Izena edo izen sintagma ordezkatzen dute (Ad. :**Joxean Kerejeta** triste zegoen, **bere** taldeak galdu egin zuten Buesa Arenan Pamesa Valenciaren aurka).
- **Erakusleak** (hau, hori, hura, hauek...): Elementu isolatu bat, esaldi nahiz paragrafo oso bat ordezkatzeko erabil daitezke. (Adib.: **Ben Johnson stanozolol-en positiboa eman zuen** Seulgo 1988ko Jokoetan. **Horrek**, 100 metrotako urrezko domina kentzea ekarri zion/gabe geratzea).
- **Aditzondoak:** Hainbat adberbio (hemen, hor, han; bertan; honela, horrela, hala...) ere erabil daitezke testuan esandako zerbaiti erreferentzia egiteko (Adib.: **Berlin 1936ko Olinpiadak** "nazismoaren Olinpiadak" ez-izenez ezagunak dira. **Bertan** Jesse Owens atleta estatubatuar beltzak lau urrezko domina lortu zituen).

**Perifrasia:** Hitz multzo batek ordeztzen du aurretiaz aipaturiko elementua (Adib. **Lotina** oso triste zegoen. **Realeko entrenatzaile bizkaitarra** ez zegoen hitz egiteko moduan).

**Elipsiak:** Baliabide honen bitartez testuko elementuren bat alferrik errepikatu beharrean, isildu egiten da (Adib.: **Joane Somarriba** txirrindularia bizkaitarra da, **Giroa** baten baino gehiagotan irabazitakoa, baita **Tourra** eta munduko txapelketa baten irabazitakoa ere).

## LOKAILUAK

Emendiozkoak	Hautakariak	Aurkaritzakoak	Ondoriozkoak	Kausazkoak
ere	bestela	ordea, berriz	beraz	zeren
ere bai, ere ez	osterantzean	ostera, aldiz	bada	zergatik
baita ... ere	gainerakoan	aitzitik, alabaina	hortaz	ze
ezta ... ere	gainontzean	bizkitartean	orduan	alabaina
gainera	ezpabere	dena dela / den	honenbestez	bada
bestalde		hala ere	horrenbestez	izan ere
halaber		hala eta guztiz ere	hala	
orobat		haatik, horratik	halatan	
behintzat		barren		
bederen				
behinik behin				
gutxienez				

## TESTU ANTOLATZAILEAK

### Hasiera

Hasteko, hasteko esan dezadan, lehenengo eta behin, aztertuko dugun gaia, idazki (hitzaldi) honen bidez, idazki (hitzaldi) honen helburua, ...-z hitz egin behar dudalarik, batez ere, egun hartan, ezer baino lehen, bazen behin, lehen-lehenik, gizona mundura baino lehen, dena ... hasi zen...

### Ordena

Baita ere, ildo beretik, honako hau, honekin batera, bestek beste, era berean, bigarrenik, ez hori bakarrik, gorago esan bezala, lehen (arestian) esan bezala, are gehiago, beste batzuetan, honen ondoren, berriro ere, gisa berean...

### Hierarkizazioa

Batez ere, guztien gainetik, baino gehiago, batik bat, ez bezala, ezer baino lehen, ez ezik ... ere...

### Idea berriak

Gainera, egia esan, modu berean, ez ezik ... ere, are gehiago, bestetik, halaber, eta, ez hori bakarrik, bestalde, baita ere, ere bai...

### Kontrastea

Dena delarik ere, horren aurka, esanak esan, edozein modutan ere, hori horrela izanik ere, zernahi gisaz (ere), aurrekoaren kontrara, kontuan hartu baina, datorrena datorrela, hori gorabehera, kontuan izan bestetik, nolnahi ere...

### Beharritza

Derrigorrez, ezinbestean, ezinbestekoa da, nahitaez, halabeharrez, beharrezkoa da...

### Jarraipena

Honen ondoren, hariarekin jarraituz, era berean, bigarrenik, baita ere, gero, honen ostean, hau ikusi eta gero, hau ikusi ondoren, bigarrenez, honez gain, aurrera beharrez...

### Arrazoia

Bait-, -nez gero, -la bide, zeren eta, horregatik, -lako, -la eta, -la kausa, behin eta berriro, -tzarren, -teagatik, preseski...

### Denbora

Lehen, gaur egun, orduan, gero, antzina, egun batez, XXI. mendean, orain, hasieran, lehenengo egunean, azkenik, behiala, halako batean, beranduago, laster, lehenengo, orain arte, behin (batean), 1997an...

### Exenplutasuna

Adibidez, konparazio baterako, hori argitzeko, alegia, eman dezagun, konkretatuz gero, esate baterako, demagun, bestek beste, hau da, pentsa dezagun, esaterako, kasu, aipa dezadan, hots, besteen artean...

### Ziurtasuna

Ez dago dudarik, onartu behar da, segur aski, onartuta dagoenez, nola ez!, zer esanik ez, noski, ziurrenez, hala bada ere, onartzen denez, egia da, dudarik gabe, jakina, benetan, zinez, ezbairik gabe, ez dago zalantzarik, argi dago, denok dakigu, ziur egon, jakina denez, bistan dago...

### Balorazioa

Zorionez, tamalez, espero dezagun, zoritxarrez, eskerrak, ez legoke gaizki, espero izan...

### Bukaera

Bukatzeke, amaitzeko, laburbilduz, konklusio gisa, amai dezagun esanez, azkenez, azkenik, eta besterik gabe, honela, laburtuz, hitz gutxitan, bukaeran, honek zera erakusten digu, horrenbestez...

### Indartzea

Aipatu bezala, batez ere, beste era batera esanda, gauzak horrela, hain zuzen ere, lehenengo hariari jarraituz, mila bider esana dugun bezala, aipatu dugunez, berriro esanda, dakizuenez, dakikezuenez, hau azpimarratzeko, hori horrela delarik, esanak esan...

### Lekutasuna

Hemen, hor, harantzago, beste tokietan, -en alboan, goian, behean, urrutirago, eskuinean, atzean, aurrean, atzeko aldean, -tik gertu,...

### Parekidetasuna

Era berean, alde batetik, beste (konparazioan), ezta ere, bai ... bai, bezala, halaber, bestetik, bezain, baita ere, dela ... dela, legez, orobat, adina, lain, moduan, antzera...

### Probabilitatea

Dirudienez, agidanez, antza, omen, ei, inondik ere, itxura denez, itxuraz, badirudi, nonbait, esan daiteke, beharbada, agian, onenean (ere), diotenez, baliteke, apika, seguru asko, nonbait, dirudienez, antza denez, baliteke, susmatu, uste izan, izango zen, izan zitekeen, omen, ote...

### Ondorioa

Esandakoaren arabera, laburki, hau guztia dela eta, funtsean, argi dago, bada, honen ondorioz, horren kausaz, esanak esan, on litzateke, hau dela bide, ... kontuan izanik, hain zuzen ere, hori dela medio..

<http://www.eoidurango.net/pro-cas/eusgz.doc>

## 4. LAN-SEKUENTZIA KIROLA ETA TEKNOLOGIA, HITZALDIA

### 14. jarduera. Zer daukagu? Zer falta da?

Heldu da hitzaldiaren prestaketan buru belarri sartzeko momentua!

Zeri buruzkoa da hitzaldia? Norentzat? Zertarako? Nola? Non? Nortzuk?  
Zer daukagu honezkero? Zer falta zaigu egiteko? Galdera horiek argi izan  
behar dituzue zuen hitzaldia ondo antolatzeko.

#### Prozedura:

Orain arte egindako lana aztertu; horretarako taldeko guztiek lortu duzun informazioa eta sortu dituzuen testuak atera. Erabaki zer erabiliko duzun eta zer falta zaizuen, eta gero, egiteko geratzen zaizuen lana planifikatu.



Aurretik plangintza ona egiteak denbora aurreztuko dizue gero.

Denbora eman zuen hitzaldiaren plangintza egiten eta horren barruan egin beharrekoak zehazten.

Ikus-entzunezkoak erabiliko badituzue, Power Pointa edo beste baliabiderik erabiltzeko aukerarik duzun galdetu irakasleari.

### 15. jarduera. Nola amaitu hitzaldia?

Hitzaldien amaierak ez dira orain arte ekoiztutako azalpen testuen bezalakoak, gogoratzen bazarete antzekoa gertatzen zen sarrerarekin. Konklusioan, ideia nagusiak errepikatzeko dituzue, eta zuon ikerketaren ondorioak azaldu; baina dotore amaitzeko, aipu esanguratsu edo zirrarragarriren bat egin dezakezue. Ondoren, gaiari buruzko galderak egiteko aukera izan dezakete entzuleek.

### Prozedura

Irakurri Anjel Lertxundiren eta Pedro Miguel Etxenikeren hitzaldien amaierak. Bakoitzean agertzen den azken aipua edo aipuak idatzi.

Aztertu amaiera hauen ezaugarriak; horretarako, 2. jarduerako koadroa erabil dezakezue.

### 12. testua

#### ANJEL LERTXUNDI

(2002-XI-28)

Eta bukatzeko, badugu beste kontu bat, modernitatearekin batera etorri dena, eta oso problematikoa dena, eta honako hau da: kulturaren eremuaren tribalizazio erabatekoa. Gaur mundu guztiak pentsatzen du, Melvilleren Moby Dick irakurri duela, inoiz marrazki bizidunak ikusi zituelako. Edo pintura modernoa ezagutzen duela *La Dos*-en halako batean hainbat koadro eman zituztelako. Eta orduan pentsatzen dugu, inoiz entzunagatik, eta inoiz zerbait ikusiagatik, edo zinean, edo dena-delakoan, ezagutzen dugula kultura eta kultura horretaz jabetzen garela. Eta orduan bizi gara kultur munduaren superfizie batean, superfizie erabatekoan. Eta hori ere badaukagu. Ez da euskaldunen kontua soilik, baizik gizarte modernoek kontuetako bat.

*(Entzuleen galderak eta agurra)*

[http://www.bilbozaharra.com/euskera/forum/documents/lertxundi\\_001.doc](http://www.bilbozaharra.com/euskera/forum/documents/lertxundi_001.doc)

AIPUA(K): \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

### 13. testua

#### Pedro Miguel Etxenike. Fisika, sormena, etorkizuna.

Eta orain bai, orain amaitzera noa. Amaitzera noa, txantxetan esan ohi dudan bezala, hizlaria berotu egiten baita sarri, gustukoa baitu bere gaia. Baina berotze horretan arrisku handia dauka, ez baitago hizlari batentzat ezer okerragorik, jarraitzeko bere grina eta audientziarena alderantziz proportzionalak izatea baino.

Ez gaude zientziaren amaieran, hasieran baizik. Nik hala ikusten dut behintzat Zientzia: jaio berri, sormenerako ezin konta ahal aukera eskaintzen dizkigula. Galderei erantzuna emanez egiten du aurrera zientziak, baina erantzun horietatik galdera berriak sortzen dira ostera. Esan liteke badagoela hor Energiari eusteko legearen antzeko beste lege bat: "Ez-jakintasunari eusteko legea". Oharkabeko ez-jakintasuna zena, ez-jakintasun ohartua bilakatzen da, hori da dena. Ez-jakinak gabela konturatzen gara. Are gehiago, beharbada badago beste lege bat ere, entropiarenaren antzekoa, "Ezjakintasuna areagotzeko legea" deitu dezakeguna. Ikerketa zientifiko batek emaitza zilegi bakarra ...

Gure gazteek –eta guk guztiok- behar duguna ez da teknologia eta zientzia ikasten ordu gehiago sartzea. Ez behintzat hori bakarrik. Horrez gain, etorkizunari iraganekoa ez den begiradaz begiratzen ikasi behar dugu lehenbailehen. Gure seme-alabek eskubidea dute etorkizun hobe batekin amets egiteko. Amets hori inoiz egia bihur dadin, ikasi beharko dugu atzera geratzen dena bertan ez uzten; ikasi beharko dugu aberastasuna sortzeaz gain den-denei zor zaiela modu orekatuan garatzeko eskubidea; ikasi beharko dugu ingurumena modu arduratsuan tratatzen; eta ikasi beharko dugu kultur aniztasuna behar bezala zaintzen. Eta Euskal Herriaren kasuan, euskara da, dudarik gabe, zaindu beharreko gure kultur ondarearen zatirik garrantzitsuenetako bat.

[http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik\\_kod=11805](http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=11805)

AIPUA(K): \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

Nahiz eta sarreretan eta amaierak iritzi testuetan agertzen diren baliabide batzuk erabili, ez ahaztu hitzaldi mota hau ez dela argudio testu bat. Honelako testuetan ez dago tesiaren aurkezpenik eta argudiatzerik eta amaieran ez da indar handiagoz berreskuratzen aurretik azaldutako tesia. Gure azalpen testuan, hortaz, baliabide berri horiek interesa pizteko eta mantentzeko balio dute, ez audientzia konbentzitzeko.

Badago kontuan hartzeko beste zer edo zer; hitzaldien amaieran galdetzeko aukera izan dezakete entzuleek. Horrela izatea hizlariaren esku dago. Erabaki aukera hori emango diezuen entzuleei, eta horrela bada, aipatu zuon hitzaldian.

**15.2.** 13. testuan bilatu hurrengo hitzen edo espresioen baliokidea.

Moduan		Horrela	
Alderik		Konturatu gabeko	
Gehiago esango dizuet		Ahal bezain laster	
Zalantzarik gabe		Askotan	
Era		Zerbait	
Halako batean		Gainera	
Guzti-guztiei		Entzuleena	
Atsegin baitu		Ugari	
Agian		Bukatzeraz	
Soilik		Txarragorik	

**15.3.** Hutsuneak bete, baina jatorrizko testuan agertzen diren espresioen esangura berdina duten beste esaera batzuk erabili.

**ANJEL LERTXUNDI**


**(2002-XI-28)**

Eta \_\_\_\_\_, badugu beste \_\_\_\_\_ bat, modernitatearekin batera etorri dena, eta \_\_\_\_\_ problematikoa dena, eta honako hau da: kulturaren eremuaren tribializazio erabatekoa. \_\_\_\_\_ mundu guztiak \_\_\_\_\_ du, Melvilleren Moby Dick irakurri duela, \_\_\_\_\_-marraski bizidunak ikusi zituelako. Edo pintura modernoa ezagutzen duela *La Dos*-en halako batean hainbat koadro eman zituztelako. Eta orduan pentsatzen dugu, inoiz entzunagatik, eta inoiz \_\_\_\_\_ ikusiagatik, edo zinean, edo dena-delakoan, ezagutzen dugula kultura eta kultura horretaz \_\_\_\_\_ garelako. Eta orduan bizi gara kultur munduaren superfizien batean, superfizien erabatekoan. Eta hori ere badaukagu. Ez da euskaldunen kontua \_\_\_\_\_, baizik gizarte modernoaren kontuetako bat.

## 16. jarduera. Hitzaldia prestatzen.

### Prozedura

Taldeka, amaitu zuen hitzaldiaren gidoia garatzen. Hitzaldiaren zirriborro osoa (sarrera, garapena eta amaiera) eginda duzuenean, erabaki taldeko bakoitzak hitzaldiaren zer zati azalduko duen.



Erakutsi gidoia eta hitzaldiaren banaketa irakasleari aurrera jarraitu baino lehen.

**16.2** Entzuleen arreta erakartzeko zuen ahotsaz aparte beste baliabide batzuk erabil ditzakezue, gainera ez ahaztu entzuleak 11-12 urteko ikasleak izango direla. Ez ditugu aspertu nahi, ezta? Zuen gidoian adierazi non erabiliko dituzuen lagungarri izango diren irudiak eta baliabideak.

Power Pointeko diapositibak dira erabil ditzakezuen baliabide mota bat. Diapositibak prestatzeko honako helbide elektronikoko hauek lagungarri izan daitezke.

POWER POINTA NOLAKOA IZAN BEHAR DEN.

<http://www.sc.ehu.es/topcogoj/power%20pointnere.doc>

[TEXTUAK/Powerpoint nere amenabar.doc](http://www.sc.ehu.es/topcogoj/TEXTUAK/Powerpoint%20nere%20amenabar.doc)

IKASLEEK EGINDAKO POWER POINT AURKEZPENAK

<http://www.galeon.com/haurtzaro/>

<http://www.galeon.com/haurtzarokoikasleak/Weborriak/87PpNagusia.htm>

<http://www.galeon.com/haurtzarokoikasleak/Weborriak/88PpNagusia.htm>



Gogoratu diapositibak prestatzerakoan gaztelaniako unitatean puntuazioari eta tipografiari buruz ikusitakoa.

**16.3.** Hitzaldiaren zirriborroa eta baliabideak prest daudenean, taldeko kide bakoitzak bere zatia garatu behar du, ez baita erraza hitzaldia inprobisatzea; horretarako, taldekide bakoitzak bere ahozko zirriborroa edo ahozko testu formala garatu behar du. Ez ahaztu lokailu eta testu antolatzaile egokiak erabiltzea. Amaitutakoan erakutsi egindakoa zure taldekideei, haiek zurea zuzenduko dute eta zuk haienak.

## 17. jarduera. Praktikatzen.

Praktikatzen hasi baino lehen, ikusi [Stanley-ren bideoa \(High School Public Speaking\)](#). Ingelesez dago baina oso lagungarria izango zaizue zuen hitzaldirako. Bideoan agertutako gakoak koadroan idatzi.

### BIDEOAN AGERTZEN DIREN GAKOAK

Hitzaldi motak:

- 1.
- 2.

Hitzaldia gauzatzeko aukerak

- 1.
- 2.
- 3.

Notak egiteko aukerak:

- 1.
- 2.

Hitzaldia gauzatzekoan kontuan izan beharrekoak:


- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.

Baliabideekin kontuan izan beharrekoak:

- 1.
- 2.
- 3.

**17.2.** Irakurri bizpahiru aldiz idatzita daukazuen testua, ahoz adierazi behar duzuen edukia zeuenganatzeko, eta, ondoren, egin haren eskematxoa edo prestatu notak. Izan kontuan ez duzuela testua irakurri behar, mezua eskema edo noten laguntzaz soilik adierazi behar duzuela.

Hasi praktikatzen: lehenengo taldearen barruan, eta, gero, beste talde baten aurrean.



Beste taldeko kideek hurrengo orrialdeko kontrol fitxa erabiliko dute zuen lanaren kritika egiteko. Ondoren, zuek kritikatuko duzue beste talde horren lana.

Ahalegindu entzuleen arreta mantentzen, eta egiaztatu, noizean behin, mezua ulertzen dutela: *Bai? Ulertzen al da esan dudana? Argi al dago?* modukoak erabili.



KONTROL ZERRENDA	
Euren burua aurkeztu dute	
Interesa pizteko balio duen strategiaren bat sartu dute sarreran	
Sarreran gaia eta azalpenaren asmoa argi uzten dute	
Kide batek amaitutakoan hurrengo kideari txanda eman dio	
Bere ahotsa eta gorputzaren portaera ondo kontrolatzen dituzte	
Entzuleen arreta mantentzeko gai dira	
Testuaren helburua informatzea da	
Hitzaldia hartzaileei egokituta dago	
Hitzaldia era logikoan egituratuta dago eta erraza da jarraitzeko	
Kausa-ondorioa egiturak era egokian erabilia daude	
Diapositibetan ez dago ortografia- edo puntuazio-akatsik	
Irudi edo/eta grafiko egokiak erabili dituzte	
Baliabide tipografikoak erabili dituzte edukia antolatzeko eta garrantzitsua dena nabarmentzeko	
Erreferentzia-mekanismoak ondo erabilia daude	
Hitzaldia osotasunean hartuta ondo kohesionatuta dagoela eta koherentea dela esan genezake	
Hitzaldia era egokian itxi dute	
Ahozko jarduna era egokian banatu da taldekide guztien artean	

Gelakideek betetako kontrol zerrenda irakurri eta saiatu zuen hitzaldia hobetzen emandako aholku horiek jarraitzen. Praktikatut behar dituzuen beste, eroso eta konfiantza osoz sentitu arte.

## 18. jarduera. Entzuleen aurrean.

Heldu da eguna! Gaztetxoek ebaluatuko dute zuen lana. Eta posible bada klaseko kideak emandako hitzaldiak bidez grabatuko dira.

Interesgarria izango litzateke DBHko 1. mailako ikasleek arinagotik txantiloia zeri buruz den argi izatea. Hitzaldiak taldeka ebalua ditzakete, baina denak ebaluatu beharrean, bi edo hiru hitzaldi bakarrik ebalua ditzakete.

TALDEA				
<b>Informazioa</b>	Oso ondo	Ondo	Gutxi	<b>IRADOKIZUNAK</b>
Informazioaren kantitatea				
Informazioaren kalitatea				
Erakargarritasuna				
Argitasuna				
Jarraitzeko erraza				
Diapositibak ondo idatzita				
Gaiaren antolaketa				
Hizkuntza				
Adibideak jartzea, azalpenak ematea				
<b>Ekoizpena</b>	1. KIDEA	2. KIDEA	3. KIDEA	<b>IRADOKIZUNAK</b>
Entzuten zaio				
Ahoskatu				
Baliabideak erabili				
Gorputzaren keinuak kontrolatzen ditu				

## Auto-ebaluazioa

### UNITATEA BALORATZEKO GALDEKETA

1. Unitate honetan ikusitako edukietatik zein interesatu zaizu gehien eta zein gutxien?
  - Gaia
  - Hitzaldiaren ezaugarriak
  - Testu genero eta testu tipoa bereizten.
  - Ez-hitzezko estrategien garrantzia
  - Testua komunikazio egoerara egokitzen
  - Testua kohesionatzen
  - Ahozko jardunaren gakoak
  - ...
2. Zure ustez, ba al da gehiago landu behar izango zen edukirik? Aipa itzazu.
3. Zeintzuk jardunek kostatu zaizkizu gehien?
4. Zeintzuk jardunek kenduko zenituzke?
5. Azken ekoizpena prestatzeko laguntza eta informazio nahiko izan duzu.
6. Aipa itzazu unitate honetan ikasitako eta zure ustez eguneroko bizitzarako baliagarriak diren gauzak.
7. Nola baloratuko zenuke amaitu berria duzun unitatea?
  - Unitatearen edukiak:
  - Erabilitako metodologia:
  - Erabilitako materialak:
  - Saioen erritmoa:
8. Zure ustez nola hobetu daiteke, unitate hau?  
Iradokizunak: